

Antzastiren historia, gure historia

Cristina Amezaga Laita / Elena Amezaga Laita

Antzasti museoa

Laburpena

Antzasti museoa etxeari dedikatutako espazioa da eta bi emakumeren ekimenez sortutako proiektua. Gure historia hurbilean garaikide ziren bi gizarte moten isla ematea du helburu, alde batetik, bizitza tradizionala, eta bestetik, iraultza industrialaren ondorioz etorritako modernitate berriaren bizimodua. Bi bilduma errealean bitartez eta etxearen kontzeptua ardatz hartuta, gure historiaren aldaketa sakoneko epe honen berri emateaz gainera, emakumearen lanerako tradiziozko lekuari arreta berezia jartzea da bere helburuetako bat. Dimako Artaun auzoan kokatzen den museo hau proiektu pertsonal baten eredu garbia da eta bere ibilbidea da hurrengo lerroetan azaltzen dena.

Gako-hitzak: museoa, etnografia, historia, Dima, emakumea

Jasotze data: 2021eko ekainaren 28an

Onarpen data: 2021eko abuztuaren 25ean

Resumen

El museo Antzasti es un espacio dedicado al hogar y un proyecto creado por iniciativa de dos mujeres. Se trata de reflejar dos tipos de sociedades contemporáneas en nuestra historia reciente, por un lado la vida tradicional y por otro la vida de la nueva modernidad derivada de la revolución industrial. A través de dos colecciones reales y centrándose en el concepto de casa, uno de sus objetivos es, además de dar a conocer este período de profunda transformación de nuestra historia, prestar especial atención al lugar tradicional de trabajo de la mujer. Situado en el barrio de Artaun de Dima, este museo es un claro ejemplo de proyecto personal y su trayectoria es la que se muestra en las siguientes líneas.

Palabras clave: museo, etnografía, historia, Dima, mujer

1. HASTAPENAK

Istori hau 1974an hasi zen, gure aita Patxi Amezagak, Jesus Larrea ezagutu zuenean eta, hilabeteetako tratuen eta negoziazioen ondoren, aitak eta amak Arantza-sagasti baserria, auzotarrek Antzasti zeritzatena, erostea erabaki zutenean. Hasiera batean transakzio soila zena, denbora gutxiren poderioz, Patxi eta Jesusen familien arteko adiskidetasun estuan bihurtu zen, gaur egunera arte irauten duena. Ordutik, Antzasti izango zen Patxiren hurbileko familiaren atsedenleku, ez bakarrik gure ama Carmen eta gu biontzat, Elena eta Cristina, baizik eta gure gurasoen anai-arreben familientzat ere, asteburu guztietan elkar-etzeko topagunea Antzasti izango bait zen.

Azken batez, Antzasti familiaren bilgune bilakatu zenez, bertan hazi ginen eta gure Bilboko egunerokoaren oso bestelako bizimodua bizi izan genuen bertan. Bilbotik apenas hogeitamar minutura egon arren, paisaia eta jendea erabat aldatzen ziren. Hiri jendetsu eta zaratatatsutik Artaun auzoko asteburu amaigabeetara egiten genuen salto astero astero.



Hasierako urteetan, Jesusek eta Segundak baserriaren hainbat leku erabiltzen jarraitu zuten, esaterako ukuilua, lastategia edo soloa, eta guk etxebizitza eta baserria inguratzen zuen arloaz gozatzen genuen. Ondorioz, Larreatarrak lanerako erabiltzen zituzten espazioetara sartzea erabat debekatuta geneukan, eta, jakina, leku debekatu horiek ziren gehien erakartzen gintuztenak.

Aitak Antzasti erosi zuenean, aurre egoeran ez bazegoen ere, teiltatua zutik mantentzen zenez, barrualdea nahiko hondatua zegoen. Izan ere, etxebizitzaren zati handi bat oilategi gisa erabilia izan zen urteetan. Beraz, hasieran gure egonaldiak egunekoak baino ez ziren eta gauero Bilbora joaten ginen lotara.

Baserria erosteko erabakia oso pentsatua izan zen etxean. Aita, mendizalea eta etnografiazalea izanik, salgai zeuden baserrien bila ibili zen urte askotan, eta, beraz, Antzasti erosi ahal izan zuenean, oso argi zeukan bertan nolako bizimodua eramango zuen. Hiria- ren munduarekiko erabateko deskonexioa lortzea zuen helburu. Ondorioz, baserriaren estetika mantentzea izan zen hartuko zuen lehendabiziko erabakietako bat. Jatorrizko banaketa bera mantendu zen, egoera txarrean zeuden egurrezko elementuak zaharberritu, desinfektatu, pintatu eta babestu, besterik ez zen egin. Etxebizitzari gehitu zitzaion espazio berri bakarra komuna izan zen, logela baten zati bat erabiliz, hain zuzen, inguruko baserri askok oraindik ere ez zuten leku modernoa. Aurrerantzean eta familiaren laguntzaz, espazio berriez gozatzeko aukera izan genuen etxebizitza osoa erabiltzera iritsi arte.

Antzastin bertan aurkitutako altzariak eta lanabesak zaharberrituz joan ginen, hurbileko baserrietan desusoan geratzen ziren eta ordurako erabiltzen ez zituzten pieza zaharrak bildumara gehituz joan ziren eta inguruko baserrietara pieza gehiago erosiz joan zen aita.

Bizimodu berri honek ere ohitura berriak ekarri zizkion familiari. Harrezkeroz, esnea eta gaztak auzoko baserrietan erosiko genituen, barazkiak soloetakoak ziren eta frutak gure arboletakoak. Aitaren lanari esker, gaur egun fruta-arbola ugari eta bertoko espezetako hainbat zuhaitz mota ditugu, besteak beste, nola ez, arantza arbolak eta sagastia. Artikulu berriak ere agertu ziren gure janzkeran, esaterako abarkak eta artilezko galtzerdiak. Bistakoa denez, aldaketa horiek guztiek eragin zuzena izan zuten familiarengan eta, egia esateko, batzuek besteek baino arrakasta handiagoa izan zuten gure artean.

Halaber, igandero Artaungo hamaiketako mezara joatearena ohitura saihestezina izango zen, eta beti amak lagunduta. Mezara joateko deiaren iragarpena hiru kanpaikada bidez egiten zen eta lehendabizikoaren eta mezaren hasiera orduaren artean hogeitamar minutuko tartea genuen. Ohituraz araututakoa jarraiki, emakumeak elizaren ezkeraldeko eserleketan jarriak ziren, eta gizonak eskuinekoetan. Kantuetan emakumeen ahotsak nagusi ziren ala behintzat haien tonua zorrotzagoa zen, edo sikera horrela hautematen genuen. Hori bai, elizkuzuna orotara ziztu bizian zihoan, inoizko abiaduran, bai kantuan zein otoitzean. Hamaiketako mezara iritsi ezean, alboko auzoan, Oban, egiten zen hama-bitako mezara joaten ginen korrika batean.

Mundu hau, Bilbotik hain hurbil, baina ohituretan hain urruna zena, gure aitarentzat babesleku eta atsedentoki ezinbesteko bihurtu zen. Izan ere, inguruak ihes egiten laguntzen zionaz gainera, auzokoek etxekotzat hartu zuten eta lagun handiak egin zituen auzoan. Askok izan ziren, bestalde, bisitan etorri zitzaizkionak, garai hartan ez baitziren asko baserriak erosten zituztenak, oraindik ez baitzeuden modan. Beharbada, zenbaitzuri aitaren egi bihurtutako ametsak bitxiak ala bereziak irudituko zitzaizkien.

Aipatu garai honetan, Bilboko jendearen artean, ohikoagoa zen kostaldeko herrietara jotzea, bai asteburuetan zein uda pasatzera, kirol eta aisialdirako klubak ere modan jarri ziren, eta txaletak eta urbanizazio moderno berriak eraiki ziren Bilbo inguruan eta kostalde hurbilean. Artaungo auzotarrak, berriz, Bilboko munduarekin kontaktu gehiago izaten hasi ziren, Jesusen eta auzoko gainerakoen seme-alabak unibertsitatean ikasten hasi eta irakasle lanak aurkitzen baitzituzten, baita bulegoetan, banketxetan edo bestelako enpresatan. Baina gure aitak argi zeukan bere denbora librea non eman eta gure bizitza non erroto nahi zuten.

Joan-etorri horretan, urteak aurrera zihoazen, eta pixkanaka guk beste bizimodu bat ikasten genuen naturarekin harreman zuzenean, hain zuzen gure Bilboko hainbat lagunek ez zutena, eta laster ikasi genuen bizimodu berri hau estimatzen. Aitak eta amak aukeratutako paisaiak gureak bihurtu ziren. Haiek, berriz, egunetik egunera bizitokia

geroz eta txukunagoa jartzen zuten, baina beti ere baserriak propio zituen erak, moldeak eta esentzia mantenduz eta erosten zuten pieza bakoitza gure laguntzaz zaharberrituz. Eta bitartean, kasik konturatu gabe, elementu bakoitzaren inguruko informazio anitza eta zehatza jasotzen genuen.

2. ARRATIATIK BILBORA

2004. urtean aita hil eta baserria berak utzitako egoera beretsuan mantendu genuen hainbat urtetan, asteburuetan joaten jarraitzen bagenuen ere. 2007. urtean, berriz, berriro ikasten hastea erabaki genuen, eta soziologia ikasketak egiteari ekin genion unibertsitatean. Antzastin topatu genuen ikasteko beharreko lasaitasuna eta, aldi berean, gure seme-alabak hazteko leku aproposa. Egiten genituen atsedendietan, ganbarara hurbiltzen ginen, eta amak bere familiarengandik jasotakoa, hainbat kutxetan bilduta zena, arakutzen genuen. Nahiz eta objektu guztiak ikusiak genituen eta haien inguruko historia ezagutzen genuen -gure amak behin eta berriro errepikatzen baitzuen, seguru asko gure oroimenean iraun zezan- momentu horietan gu ginen harritzen ginenak horiek denak ikusitakoan, haien inguruko istorioak gogora ekarritz.

Amak urtetan zaindu zuen gure izeba-amonak Dolores, eta hau hil ondoren, familiaren etxeko altzari, ohial, jantzi, dokumentu eta tresna guztiak jaso zituen eta baserriko ganbaran gorde. Bilboko Arriaga antzokiaren inguruko garai hartako pisu bateko elementuak ziren, zehazki Berastegi kalean kokatua zena.

Izeba Dolores (1887-1982) ezkongabea zen eta hil zenean edadeko emakumea. Bere gurasoen etxea haiek utzitako moduan mantentzen zuen, urteak berarentzat igaro izan ez balira bezala. Laurehun metro koadroko etxebizitza zen. Nahiz eta dekorazioa XIX. mendearen bukaerakoa zen eta guretzat ilun samarra, bere handitasuna eta dotorezia sumatzeko beste ginen. Korridoreak zizelkatutako altzari handiekin apainduak zeuden, eta, horietako askoren gainean, pitxer handiak, erlojuak edo santu eta birjinen irudiak. Leihoez zetazko gortinak zituzten, gelei soiltasuna emanez.

Astero, ikastolatik etorritakoan, hainbat arratsaldetan hurbiltzen ginen bere etxera, bisita egin eta alde zuretik gure amari eskatzen ziona eramatera. Ez zen oso emakume maitekorra, gehiago balioesten zituen manera onak, edozein maitasun-adierazpen baino. Bisitak guretzako oso luzeak ziren edo behintzat ziruditen. Beti harrera-gelan egoten ginen eta inoiz beste edozein gelatarara pasatzen uzten bazigun, beharrez egiten zuen, eta une horretan gozatzen genuen gehien, etxe izugarria baitzen, baina gutxitan izaten genuen ikusteko aukera. Mende hasierako film batean sartzea bezalako sentsazioa sortarazten zigun.

Edonola ere, gure izeba-amonak bisitakoari errepertuz, erraz uler daiteke orduko denboran harrapatuta gelditu izana. Emakume ezkongabea izanik, bere neba ezkongabe

Fernandorekin bizi izan zen hura hil arte. Biak ala biak, Bilbon bizitako gaztaroko “urrezko urteak” ahalik eta gehien luzatzen saiatu ziren. Bere ondarea ere luzatzen saiatu ziren, eta baliozko objektu eta bitxi batzuk saltzen eman zituzten azken urteak.

Haien mundua ulertzeko orduan, garaiko gizarte burgesari so egitea besterik ez dago. Aita, Mariano Laita y Moya, Bilboko Bizkaiko Institutuko katedradunen lehen belaunaldiko Geografia eta Historiako Katedraduna izan zen, eta bere espezialitateko liburu ugari argitaratu zituen. Ama, berriz, Milagros De la Rica, Basilio De la Rica enpresariaren eta Lorenza Hernández Ageroren alaba bakarra zen. Basilio, berriz, bere anaia Joaquinekin batera, Bizkaiko “Rica Hermanos” Arbuio jute lantegiaren sortzailea izan zen. Fabrika honen inguruan, enpresak berak sustatutako langileentzako etxebizitza auzo bat eraikia zen, Smith arkitekto ospetsuak diseinatu.

Zalantzarik gabe, izeba Doloresek arrazoi sendoak zituen bere burua iraganean kokatzeko eta finkatzeko, eta, jakina, horrek arrastoa utzi zuen gure bizitzan ere, bere bizimodua eta betearazten zizkigun arau zorrotzak, gure bizimoduarekin eta gaztaroarekin beti ere talka egiten baitzuten.

Gure haurtzaroa, beraz, mundu oso ezberdinen artean igaro zen, beti kontrastean. Alegia, aitaren eta amaren arteko ezkontzaren isla besterik ez zena. Bi pertsona, jatorriz oso ezberdinak, baina elkar ulertzen eta elkar osatzen jakin zutenak.

3. AURRENEKO BULTZADA

Baserrira bueltatuz, 2005. urtean erabaki genuen aita gehien kezkatzen zuen lanari ekitea, hau da, teilatua konpontzea, eta, horretarako, ganbaran zeuden gauza guztiak birkokatu behar izan genituen. Konponketa amaitu ondoren, altzari eta objektu guztiak berriro banatu eta bereiztu behar ziren. Une horretan hasi ginen guztiak bi taldetan pilatzen, eta bakoitza zegokion lekuan jartzen. Gaur egun ditugun bi bildumak ziren; baserrikoa, bizitza tradizionalari dagokiona, eta hiritarra, modernitateari begirakoa.

Lana amaituta, eta genituen pieza ugariak ikusita, burutik pasatzen zitzaizkigun burutazioak era eta mota askotarikoak ziren. Ordurako, unibertsitate-ikasketak amaituta genituen eta soziologia da, hain zuzen, modernitatearen garaira ikuspegia hobekien bideratzen dakien zientzietako bat, iraultza industrialarekin batera bidea hasi bait zuen eta, besteak beste, iraultzak ekarri zuen gizarte kosmopolita eta korapilotsuari erantzunak eman nahian edo sortua bait zen. Gure historia hurbilean aldaketarik sakonena den honek, parez pare jarri zituen bi bizimodu garaikide, hots, bizitza tradizionala eta sortu berriko modernitatea. Horrek denak buruan bueltaka zebilzkiguten. Amak, oraindik

bizi zenez, galdera kontaezinei erantzuten zigun, guk familiako kide edo istorioei buruz galdetzen genionean, edo, are, esku artean genituen objektuei buruz.

Garai hartako gure oroitzapenak goxoak dira eta gainera sormen handiko aldia izan zen, gerora gure bizitzako proiektua izango zenari forma ematen ari ginenez. Berbaldi luzeak izan genituen hiruron artean, gure familiari buruz, belaunaldiz belaunaldi gordetako objektuei buruz, gure hartzaroaren aberastasunari buruz. Hain mundu desberdinen artean haztea eta biak uztartu behar izatea, batzuetan, guretzako nekeza zen, zaila bait zen bietara beti ere egokitzea umeak izanik, baina ezagutza zabalara eman zigun bi gizartearen inguruan.

Nolabait, objektu, pieza edo argazki bakoitzaren aurkikuntzak ikerketa berri bat ekartzen zuen, ordurako konturatuta ginen aitarekin eta amarekin izandako bizimodu eklektikoa estimatzen genuela eta gure inguruko gutxik izan zutela bi mundu hauek gertutik ezagutzeko eta hauetaz gozatzeko aukera, gurea ezagutza-bide naturala izan zen. Haiengandik jasotako objektu guzti horiek bi bizimodu garaikideak oso ondo laburbiltzen zituzten, bakoitza bere usadio eta ohiturei lotuak.

4. ADITUENGANA

Hurrengo urratsa eman genuenean, ez geneukan oso argi norantza gindoazen baina, bagenekien adituengana jotzea funtsezkoa zela, alde batetik, geneuzkan objektuen interesa jakite aldera eta bestetik, buruan geneukanari forma emateko bide bat aurkitu nahian. Askotxo izan ziren jo genituen atea eta, esan beharra dago, kulturaren inguruan lanean dabiltzan profesional eta adituen artean beti ere ondo hartuak izan garela, are, beti laguntzeko prest agertu zaizkigu denak ala denak. Ekarpen oso onak, pagaezinak jaso ditugu eta jasotzen dihardugu. Egia esateko, gure proiektuarenganako aurreneko jarrera askotan harridurazkoa zen profesionalen artean, baina behin gu ezagutzen gintuztela, gure planteiamenduaren berezitasunak ikusita, eta segurutik gure pasioa antzemanda, haren aldeko aletxo bat jartzen saiatu dira beti ere.

Baziren gure egitasmoan adituei erakargarri zitzaizkien hainbat alderdi eta horrek aurrera segitzeko nahikoa indarra ematen zigun. Esaterako, gure historia hurbila etxearen kontzeptuaren bitartez eta hau oinarri harturik kontatu nahi izatea, edo bizitza tradizionala eta modernitatea pare pare bi bilduma errealean bitartez aurkeztea, edo emakumearen lanari arreta berezia jartzea, besteak beste.

Esan gabe doa, garai honetan ez genuela museo tankerako espazio bat zabaltzeko asmorik. Gure hasierako ideia zen haur eta gazteei zuzentzea, gure historia hurbileko ohiturak, testuinguruak, estetikak, erak eta moduak ezagutaraziz, erabat ezezagunak bait zaizkie. Gerora konturatu gara gure nagusiek gozatzen dutenaz.

Funtsen katalogazio lanak hasi eta aditu, profesional eta artisau zaharren laguntzari esker, aurrerapausu handiak eman genituen, batez ere hiriko objektuei arreta jarritz, hauek ezezagunenak bait zitzaizkigun eta gainera objektuekin batera aztertu beharreko idatzizko hainbat dokumentazio genuen eskuartean.

Ettxekoek eta lagunek ere zerikusi handia izan zuten garai honetan eta aurrera egiteko behar genuen laguntza eta bultzada eman ziguten.

5. PROIEKTUA BOROBILDUZ

Behin ikasketak amaituta eta hainbat aditurekin hitzegin eta gero, hurrengo urteak bes-telako ekimenak ezagutzen eman genituen, bai etnografiari lotuak zein antropologiari, ala turismoari. Lan asko geneukan aurreratuta, baina asko oraindik egiteke, informazio asko bilduta, baina oraindik landa-lana egin behar genuen, eta horretara buru-belarri lanean jarri ginen.

Ezagutu genituen proiektu guztien artean, bazen bat, bereziki erakartzen gintuena eta aurrerantzean inspirazio-iturri izango zena, hain zuzen Sabres-ko “Écomusee de Marquèze” aire libreko museoa. 70. hamarkadan sortutakoa bazen ere, Frantzia mota honetako lehenengotako ekomuseoa izan zen eta garai hartan museologiaren ausnarketa sakona egin ondoren, mundu mailan indarrean jarri zen korronte berriaren adibidetako bat zen. Korronte honen harira, gerora, hainbat museo mota eta erakusketa modu desberdin sortu izan dira.

Argia zen guk ez genuela Sabres-ko egitura sendo eta zabalik, baina gure inguruan ikusten genuen auzoa eta inguru naturala zalantzarik gabe gure alde genuen. Bertaratzeko trenbiderik ere ez genuen haiek bezala, baina Arratiako tranbiaren historia gogoangarria eta xamurra gurera ekar genezakeen. Gure erakusketa biak osatzeko eta borobiltzeko ezin oinarri hobirik aurkitu.



6. MUSEOA GARA

2014.eko urrian erabakia hartuta genuen eta proiektu bat garatu genuen espazioa publikoari zabaltzeko. Urteetako ideiak, gogoak eta asmoak paperean islatzen hasi ginen.

Genituen baliabideak nahikotxo ziren. Paraje ezinhobean kokatuak ginen, Urkiolako Parke Naturalaren atarian eta Gorbeako Parke Naturalari begira, eskuartean genituen funtsak ezagutzen genituen, baserria konponduta zegoen eta gainera iraultza industrialaren garaian eraikia zen, hain zuzen XIX. mendean, eta Artaun auzoak antzinako hainbat elementu bere horretan gordetzen zituen.

Azken txanpa honetan ere, goi-mailako adituengana jo genuen gure edukiak, bai objektualak zein narratiboak, kontrastatze aldera. Hauen iritziz, baziren nolabait beste proiektu batzuegandik bereizten gintuzten zenbait aspektu. Zalantzarik gabe, gure proiektua oso pertsonala da eta horrek beste ukitu bat emateaz gainera, beste dimentsio batzuk azalertzeko gaitasuna ematen zigun. Gure kontatzeko era gainera beste bat zen, segurutik soziologia eta dekorazio ikasketek zerikusi handia izan zuten honetan. Proiektuaren edukiak gureak egiten hasi ginenez, eta oinarria etxea zenez, argi geneukan gure bisitaria etxean bezala hartu eta hura etxekoa sentiarazi nahi genuela.

Arreta berezia jarri genuen sortutako giroekin batera usainak, irudiak, argiak eta zentzumenekin lotura zuten denak zelan edo halan gure bisitari eransten. Ikusentzunezkoen beharraz ere jabetu ginen, Arratiako tranbia presente egon behar bait zuen eta, gainera, garaiko giroak txikienei erakusteko modu atsegina zen, mundu teknologikoan bete-betea sarturik gaudenez. Nolabait, dibugazio-lanaz haratago, esperientzia bat sortu nahi genuen, bisitariari 360 graduko murgilketa bat eskainiz.

Lan guzti horrek beste hainbestekin osatzen hasi ginen, kartelak jarritz, web orriaren edukiak sortuz eta lehendabiziko bisitak egiten frogatzea. Garai honetan mota askotako ikerketak eta hausnarketak egin behar izan genituen: historikoak, teknologikoak, merkaturakoak, hornitzaileenak, bisita-motarenak eta abar luze bat.

Gure lehen bisita ofiziala, nolabait esateko, 2018ko apirilaren 1ean etorri zen. Ondoren, beste bisitari asko hurbildu zitzaizkigun eta jasotako iritzia oso positiboak ziren. Baina formatuari zegokionez, ez genuen batere argi zer ginen, zaila zitzaigun bisitariari zer espazio mota bisitatuko zuen adieraztea eta, garrantzirik gabekoa bazirudien ere, traba bat zen gure espazioa aurkezteko orduan. Azkenean, Eusko Jaurlaritzarekin izapide asko bete ondoren, museoa bilakatu ginen 2019ko abuztuan.

Museo bat kudeatzearena ez zegoen gure planetan eta komenigarri iruditu zitzaigun museoetan aditu izateko master bat ikastea. Ordurarte intuizioz egiten genuena orain urrats sendoagoen beharra zuen. Oso baliogarri suertatu zitzaigun eta kudeaketaz, errentagarritasunaz, jasangarritasun ekonomikoaz, planifikazioaren beharraz, lan-moduez eta beste

hainbat alderdiz ikasten hasi ginen eta aplikatzen saiatu. Hortik, bisitaren osagarri modura, dendatxoa eta dastalekua sortzearena. Bertoko produktuen kalitatea ezinhobea da eta inguruko ekoizleentzat ezezik, gure eskaintza eta errentagarritasuna hobetzeko modu ezinhobea iruditu zitzaigun. Aurrerantzean gure bisitariak hamaiketakoarekin esperientzia gastronomikoa ere izango zuten eta horren aldeko erabateko apostua egin genuen.

7. HIRU URTEREN BURUAN

Ateak zabaldu genituenetik hiru urte besterik igaro ez badira ere, bistakoa denez, gure ibilbidea kontatzeko orduan gure haurtzarora jotzen dugu, ezinbestean. Izan ere, kontakizun hau museoen sorkuntza-moduei buruzko ikerketa antropologiko baten baitako testigantza bat izan liteke, edo museo bat sortzen den testuingurua ezagutzera bideratutako “bizitza-istorioen” metodologia erabiliko lukeen ikerketa soziologiko baten zati bat, edo familia batek egindako lan etnografiko bati buruzko txosten bat.

Zalantzarik gabe, ez ginen ibilbide akademiko ala zientifikotik etorritakoak, ez ginen adituak, baina ondo baino hobeto ezagutzen genituen eskuartean genituenak eta gure bizipenak horiei guztiei lotuak ziren. Gure ezagutza-bidea naturala izan zen eta soziologia ikasketei esker jasotakoari forma eman eta transmititzeko gai ginen.

Etxearen kontzeptua gure proiektuaren oinarritzat ezartzearena, hasieratik argi geneukan ardatzetako bat zen, besteak beste, gure emakumeen historia kontatu nahi genuelako eta hauxe izan da tradizioz emakumearen esparru nagusia. Bestetik, mende luzeetan etxea izan da gure gizartearen funtsezko egitura eta gure bizimoduaren jatorria. Etxeari berari lotu izan zaizkio bai ohiturak, sineskerak edota ofizioak, eta nola etxea, haren araberrako leinua sortuko du eta markatuko ditu gizabanako bakoitzaren bizimoduak eta ondorengoenak ere bai. Etxearen kontzeptua bera aztertzerakoan, beraz, hainbat dimentsiotatik egiterik daukagu, hala nola, gorputz politikoa, ekoizpen, lan eta kontsumo zentroa, emakumeen eta gizonen arteko harremanen esparrua, bizitza materialaren gunea, kultura eta erritualen espazioa, arau eta baloreen transmisiorako lekua eta abar luze bat, eta ondorioz, etxea agertzen zaigu gizartea artikulatzeko lehen modu gisa. Honek ahalbidetzen du etxea hainbat ikuspuntu metodologikotatik aztertzeak aukera zabala izatea. Bestalde, etxea bere inguruari, bizi duen gizarteari errotuta egon da beti, bere ormak iragazkorak bait dira eta kanpoko aldaketak barneratzen ditu. Esan genezake etxea gizakion konstruktua dela, baina etxea ere badela gu zizelkatzen gaituena.

Zutabe eta lan-lerro horiekin hasi ginen lanean, eta gaur egun ere berberekin jarraitzen dugu. Etxearen kontzeptuak ematen dizkigun dimentsioak agortezinak dira, eta iraultza industrialak eta modernitatearen etorrerak ekarri zituzten aldaketa sakonei begiratuz



egiazta dezakegu gure gaurko gizartearen konplexutasuna aldaketa-aldi honetan hasten den prozesu baten ondorio zuzena dela. Orohar, aniztasuna da gaur egun gure inguru hurbileko gizartearen adierazgarri nabarmenetakoa eta berezkoak dituzten konplexutasunei eta kontraesanei bidea ematen diena.

Gure etorkizun hurbilari begira, berriz, Antzastiren teiltupean egitasmo gehiagori lekua ematea eta partekatzea da gure nahia. Etxea edukiontzia da baina hutsala da esentziarik gabeko ontzia. Estetika, dialektika, diskurtso, ikuspuntu, molde, modu eta era ezberdinak harilkatu nahi genituzke bere baitan.

8. AURRERA BEGIRA

Etorkizuna iragartzea beti ere zaila da, are gehiago bizi dugun garai eta egoera korapilotsuan. Nolanahi ere, testuinguruak lantzetik eta ondare immateriala kulturaren funtsezko elementu gisa ezartzetik haratago, zeinek, zalantzarik gabe, ondare materialari ezinbesteko narratiba eskaintzen dioten, diziplina zientifiko desberdinen lankidetzaren interes handiko elementutzat jotzen dugu.

Aipatu bezala, konplexutasuna da gure gizartearen adierazgarri nabarmenetakoa eta etorkizunera begirako proiektuen garapenean ezinbesteko gertatzen ari da disziplinar-teko lankidetzaren zientifikoa, oraintsurarte susmaezinak ziren elkarlanak sortzen dituzte-

nak. Lankidetzaren eremu berriak irekitzea diskurtso berriak sortzea da, dimentsionalagoak, azken batean, inklusiboagoak eta irisgarriak.

Dagoeneko honen adibide asko dira erantzunak topatu nahian lanean diharduten denetariko proiektuak eta, hainbat adituren ustetan, elkarlan horietan sakontzean eta zabaltzean datza gakoa. Gure uste apalean, lan horiek ñabardura, testura, ikuspegi kontzeptual eta metodologiko berriak ekarriko lituzkete, gure mundu konplexuari hobeto moldatuko lirartekeenak eta diskurtsoak eguneratu eta aberastuko lituzkeenak.

Bestalde, zabalkundea hizpide duten proiektuetan, estatiko denak ez du lekurik ez zentzurik abiada bizian doan mundu honetan, eta formatuek indarra galtzen dute etengabe, aurrerantzean berrikuntza eguneroko jarduera bihurtuz. Sare sozialetan mezuak milioika biderkatu diren mundu honetan, ahalegin berezia egin behar da kultura-erreferentzia-espazio bat izan dezaten bai sareetan baina baita mundu materialean ere, jada biak ala biak paraleloak bait dira.

Nolabait, bisitariari eserleku eroso bat eskaini behar diogu, behatzeko, bere burua identifikatzeko eta esperientzia bat bizitzeko eta horrek erreferentzia, oroitzapen eta abiapuntu identifikagarriak eskatzen ditu arean. Gaurko gizartearen egoerak eta testuinguruak aldakorrek diren heinean, eskaintzak ere moldatu beharreko kontzeptuak bihurtzen dira.

Museoei dagokienez, zehazki, historian zehar askotxo izan dira hauek definitzeko egindako ahaleginak eta hausnarketa lanak. Esan beharra dago, ICOMen aurtengo erroka nagusietako bat, museoaren kontzeptua, definizioa eta funtzioa garatzearena dela, hauen etorkizuna noalabait iragartze aldera. Argi daukaguna da aurrerantzean moldagarritasuna, moldaeraztasuna eta malgutasuna beti ere gure arlo guztietan funtsezkoak gertatuko direla. Nahitaezko hiru "M" hauek dira edozein proiektuaren biziraupena bermatzeko oinarri sendoak.